

## ***Balora tresna - Gidaliburu azkarra***

## BALORA 2.0 TRESNA

### ARRISKU- ETA DESANPARO-EGOEREN LARRITASUNA BALIOESTEIA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURRAK ETA NERABEAK ZAINZTEKO ETA BABESTEKO GIZARTE-ZERBITZUETAN

#### Gidaliburu azkarra

**Tresna testuinguruan kokatzea** (4. or.)

Helburuak. Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko zerbitzuen esku hartzeko prozeduran txertatzea; aplikazio-uneak. Erabilera-irizpide orokorrak.

#### Arrisku- eta desanparo-egoerak: Definizioa eta larritasun-mailak

**Arrisku- eta desanparo-egoerak: Definizioa eta larritasun-mailak** (8. or.)

Babesgabetasunaren kontzeptua: *Guraso, tutore edo zaintzaileak (izatezko zaintzailea ere barnean hartuta)*, adingabeentzat ezarritako babes-betebeharrak betetzen ez dituen edo bete ezin dituen egoerak. *Zenbait tipologia salbuespentzat hartzen dira, bizikidetzaren unitateko beste kide batzuk ere barnean hartuta*. Egoerak bereiztea: arriskurik ez, babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna, arrisku arina, arrisku ertaina, arrisku larria, desanparoa. Babesgabetasunaren definizioaren osagaiak: (1) Aitaren, amaren edo tutore nahiz zaintzailearen portaera, eta (2) haurraren edo nerabearen gaur egun duen edo izan dezakeen eragina (*kalte esanguratsua*).

#### Arrisku- eta desanparo-egoeren larritasunaren balorazioa: Balorazioa egiteko irizpide orokorrak eta prozedura

<b>Denbora-tarteak. Larritasun-mailak, kalifikazioa eta esanahia</b> (16. or.)	<u>Balorazioak aintzat hartu beharreko denbora-tartea. Tipologia bakoitzaren larritasun-maila kalifikatzeko prozedura. Kasuaren larritasun-maila orokorra kalifikatzeko prozedura. Esku hartzeko proposamenarekiko familiak eskaintzen duen lankidetzaren balorazioa. Familiari eragiten dioten beste zailtasun batzuk eta iraganean izandako babesgabetasun-egoerak kontuan izatea.</u>
<b>“Kalte esanguratsuaren” kontzeptua eta kalte psikikoaren ebaluazioa</b> (19. or)	“Kalte esanguratsua”ren definizioa. <u>Haurrak edo nerabeak kalte psikikoa ote duen eta kalte horren larritasuna nolakoa den ebaluatzeko irizpideak.</u>
<b>Inguruabar bereziak</b> (22. or.)	Tresnaren aplikazioa kasu hauetan: <u>banandutako edo dibortziatutako bikoteak; balio edo ohitura bereziekin lotutako praktikak; legez emantzipatu gabe bizimodu independentea duten nerabeak.</u>
<b>Informazioa biltzeko prozedura</b> (24. or.)	Informazioa biltzeko <u>arloak. Haurraren edo nerabearen garapen psikologikoaren (emozionala, soziala, kognitiboa eta sexuala) gaineko eraginaren eta afektuarekin nahiz harremanekin loturiko alderdien balorazioa: garrantzia eta jarraitu beharreko prozedura. Kontsultatu beharreko informazio-iturriak. Informazio behar bezain osatua bildu ezin denean jarraitu beharreko jarduna.</u>
<b>Implikatutako zerbitzuak eta beharrezko baliabideak</b> (26. or.)	Babesgabetasun-egoera baten eta haren larritasun-mailaren balorazioan <u>parte hartzen duten profesionalak eta zerbitzuak.</u>
<b>Txostena egitea</b> (26. or.)	<u>Balorazio-txostenaren eduki orokorra. Tresnaren laburpen-orriaren erabilera.</u>
<b>Kasuak zerbitzu batetik bestera bideratzea balorazioaren emaitzaren arabera / Arrisku-egoeraren adierazpena duten kasuak bideratzea</b> (27. or.)	Zer <u>unetan</u> gerta daitekeen bideratzea. <u>Larritasunaren balorazioa egiteko ardura duten zerbitzuak. Nola jardun larrialdi-egoeretan. Kasuak udal-mailako gizarte-zerbitzuetatik lurralde-mailakoetara bideratzeko baldintzak eta prozedura; nola jardun susmoa izanez gero. Kasuak lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetatik udal-mailakoetara bideratzeko baldintzak eta prozedura; babesgabetasunaren larritasun-maila gutxitu dela egiaztatze baldintzak. Jarraitu beharreko jarduna <u>desadostasunak</u> izanez gero. Jarraitu beharreko jarduna familian <u>larritasun-maila desberdineko</u> egoeretan dauden <u>haur eta nerabeekin. Arrisku-egoeraren adierazpena</u> duten kasuak bideratzeko prozeduraren berezitasunak.</u>
<b>Osteko esku-hartzea</b> (30. or.)	Arrisku ertaineko, arrisku larriko edo desanparoko egoeretan esku hartzeko <u>planaren diseinuaren eta exekuzioaren ildo orokorrak</u>

### Tresna

**Babesgabetasun-egoera motak** (33. or.) Zerrenda orokorra

### Tratu txar fisikoa (34. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** Aitaren, amaren edo tutore nahiz zaintzaileen portaeraren ondorioz haurrari edo nerabeari eragindako edo eragin ahal izandako lesioak edo kalte fisikoa.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** "Tratu txar psikikoak" ere ba ote dauden balioetsi behar da. Meadow-en sindromea ere barnean hartzen du.

### Zabarkeria (36. or.)

#### A. Behar fisikoekiko zabarkeria

##### ELIKADURA (36. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurraren edo nerabearen elikadura-beharren arretan hautemandako gabezien larritasuna, (2) haurraren edo nerabearen osasunean edo garapen fisikoan duen eragina.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Medikua irizpena garrantzitsua da osasunaren gaineko eraginaren edo arriskuaren balorazioa egiteko

##### OSASUN FISIKOAREN ZAINZA (38. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurraren edo nerabearen higieinarekin, osasunarekin eta atsedinarekin loturiko beharren arretan hautemandako gabezien larritasuna, (2) haurraren edo nerabearen eta inguruko pertsonen osasunean eta errendimenduan gaur egun duen edo izan dezakeen eragina.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Medikua irizpena garrantzitsua da haurraren edo nerabearen osasunaren gaineko eraginaren edo arriskuaren balorazioa egiteko.

##### JANTZIAK (40. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurraren edo nerabearen beharren arretan hautemandako gabezien larritasuna, arropari dagokionez (nahikoa, egoera onekoa eta eguraldiaren arabera egokia izan behar du), eta (2) haurraren edo nerabearen osasunean eta eguneroko bizitzako jardueretako parte-hartzean gaur egun duen edo izan dezakeen eragina.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.

##### HIGIENE PERTSONALA (41. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurraren edo nerabearen beharren arretan hautemandako gabezien larritasuna, higie pertsonalari dagokionez , eta (2) egoera horrek berdinkideekiko eta beste pertsona batzuekiko harremanean zenbateraino eragiten duen.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.

**ETXEBIZITZAREN HIGIENE-BALDINTZAK (42. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Etxebizitzaren egoera higienikoan hautemandako gabezien larritasuna, (2) haurraren edo nerabearen osasunean gaur egun duen edo izan dezakeen eragina, eta (3) egoera onbidertzeko prestasuna.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Garrantzitsua da usteltzen ari den hondakin organikorik ba ote dagoen etxebizitzan.

**ETXEBIZITZAREN EGONKORTASUN- ETA BIZIGARRITASUN-BALDINTZAK (43. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurrak edo nerabeak gutxieneko baldintzak betetzen dituen etxebizitza bat izatea, egonkortasunari, segurtasunari, espazioari eta bizigarritasunari dagokienez, eta (2) haurraren edo nerabearen aita, ama edo tutore nahiz zaintzailea zenbateraino konturatzen diren egoeraren garrantziaz eta portaera arduratsua ote duten.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.

**B. Segurtasun-beharrekiko zabarkeria****ETXEBIZITZAREN SEGURTASUN FISIKOA ETA ARRISKUEN PREBENTZIOA (44. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Etxebizitzan segurtasunarekin loturiko gabeziak ote dauden, (2) haurraren edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzaileak nolako intentsitatez eta maiztasunez duten portaera ausartegia, (3) haurraren edo nerabearen osotasun fisikoa zenbateraino dagoen mehatxatuta, eta (4) haurraren edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzailea zenbateraino jabetzen diren egoeraz eta portaera arduratsua ote duten.
- **Larritasun-mailen** deskribapena

**ARTATZEA (45. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurra edo nerabea artatzeari dagokionez, zer maiztasunez dagoen gabeziaren bat familiaren etxearen barruan nahiz kanpoan, eta (2) haurraren edo nerabearen osotasun fisikoa zenbateraino dagoen mehatxatuta.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Haurraren edo nerabearen ezaugarri bereziak (adina, gaitasun intelektuala eta abar) kontuan izatea garrantzitsua da artatze-premiak aztertzeko garaian. Adin-tarteak bereiztea. Honako bi tipologia hauek bereizteko irizpideak aipatzen dira: "artatze-lanetan zabarkeriaz jokatzeta".

**BESTE PERTSONA BATZUEK ERAGINDAKO BABESGABETASUN LARRIKO EGOEREN AURKAKO BABESA (48. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Guraso, tutore edo zaintzaileak haurrari edo nerabeari gertatzen ari zaionaren berri izatea, (2) egoera hori gertatzen ari zela adierazten zuten seinaleak hautemateko gaitasuna, eta (3) egoeraren aurrean emandako erantzunaren egokitasuna. Ezkongai-harremanetako biktimizazioa ere sartzen da.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Haurrari edo nerabeari tratu txarrak eman, eraso egin edo behartu duten pertsonak beste hirugarren batzuk direnean —ez gurasoak edo tutore edo zaintzailea.— Tratu txar, eraso edo abusu larrien egoeretan soilik.

**C. Prestakuntza-beharrekiko zabarkeria (49. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Guraso, tutore edo zaintzaileak zer-nolako arreta eta ardura ematen dizkieten haurraren edo nerabearen prestakuntza-beharrei, eta (2) zer erantzun ematen dieten haurrak edo nerabeak arlo horretan izan ditzakeen arazoei eta ikastetxearen eskaera eta orientabideei.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Absentismo-egoeren balorazioa egiteko irizpideak barnean hartuta.

**D. Behar psikikoekiko zabarkeria****INTERAKZIOA ETA AFEKTUA (51. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zabarkeriazko portaeraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haurraren edo nerabearen adina, eta (3) haurraren edo nerabearengan ikus daitezkeen ondorioen larritasuna.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Adin-tarteak bereiztea. Kalte psikiko larriaren definizioa.

**ESTIMULAZIOA (52. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zabarkeriazko portaeraren intentsitatea eta maiztasuna, (2) haurraren edo nerabearen adina, eta (3) haurraren edo nerabearengan ikus daitezkeen ondorioen larritasuna.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Adin-tarteak bereiztea. Kalte psikiko larriaren definizioa.

**ARAZO EMOZIONAL LARRIETARAKO ARRETA ESPEZIFIKOA (53. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurrak edo nerabeak arazo emozional larriak dituen tratamendu psikologikoa edo psikiatrikoa jasotzeko beharra argi eta garbi ez betetzea, eta (2) nolako larritasuna duten arazo horiek.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Arazo emozional larrien kasuan soilik.

**ARAUAK, MUGAK ETA BALIO MORAL POSITIBOEN TRANSMISIOA (54. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Guraso, tutore edo zaintzaileak zenbateraino ez dituen betetzen haurraren edo nerabearen mota horretako beharrak, eta (2) haurrak edo nerabeak portaera- eta egokitzapen-arazo pertsonal, familiar eta/edo sozialak ote dituen edo etorkizun hurbilean horrelako arazoak izateko arriskuan ote den.
- **Larritasun-mailen** deskribapena

**Sexu-abusua (55. or.)**

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** Helduaren portaera-mota.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Aitak, amak, tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen zein bizikidetzaren unitateko kide diren beste senitarteko edo gertuko pertsona batzuek egindako abusua ere sartzen da. Larritasun maila "handia" edo "oso handia" izango da beti.

## Tratu txar psikikoa

### A. TRATU TXAR EMOZIONALA (56. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Tratu txarrak zer intentsitatez eta maiztasunez jazotzen diren, (2) haurrak edo nerabeak zer adin duen, eta (3) haurrari edo nerabeari nabari zaizkion ondorioek zer larritasun duten.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Sartzen diren egoeren deskribapena. Adin-tarteak bereiztea. Kalte psikiko larriaren definizioa.

### B. HAURRA EDO NERABEA ERABILTZEA GURASO-FIGUREN ARTEKO GATAZKETAN ZEIN GURASO-FIGUREN ETA HAUR EDO NERABEARENtzAT ESANGURATSUAK DIREN ETA BIZIKIDETZA-NUKLEOKO PARTE DIREN BESTE SENIDEEN ARTEKO GATAZKETAN (59. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Guraso, tutore edo zaintzailearen portaerak nolako intentsitate duen, eta (2) zer-nolako eragina duen haurraren edo nerabearen edo guraso-figurekiko eta bizikidetza-nukleoko parte diren beste senide batzuekiko harremanetan.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Ikusi definizioan tipologia honetan sartutako kasuak.

### C. BIKOTE BARRUKO EDO BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEEN ARTEKO INDARKERIAZKO EGOEREN ERAGINPEAN EGOTEA (60. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zer intentsitatez eta maiztasunez jazotzen den bizikidetza-unitatearen barruan indarkeria fisikoa edo hitzezko indarkeria, eta (2) egoera horiek zer eragin duten haurraren edo nerabearen edo zer larritasun-mailatako kalte fisiko eta psikikoa eragin dezaket. Genero-indarkeria eta etxeko indarkeria kalifikazio horretan sartzen dira.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Ikusi definizioan tipologia honetan sartutako kasuak. Haurraren edo nerabearen guraso, tutore edo zaintzaileen arteko indarkeriaren eraginpean egotea hartzen du, baita bizikidetza-unitateko beste kideen arteko indarkeriarena ere.

### D. ERASO FISIKOAREN MEHATXUAK (61. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zer larritasun duen haurrari edo nerabeari egiten zaizkion mehatxueta adierazitako kalteak, (2) nolako beldurra eragiten dioten, eta (3) mehatxuak betetzeko zer arrisku dagoen.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.

## Abandonua (62. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zenbat denboraz eta nolako maiztasunez uzten den haurra edo nerabea zaintzea hirugarren pertsonen esku, (2) zer-nolako inguruabarretan gertatzen den, eta (3) guraso, tutore edo zaintzaileak haurraren edo nerabearen zaintza berriz beren gain hartzeko asmorik duen.
- **Larritasun-mailen** deskribapena.
- **Gai bereziak:** Honako bi tipologia hauek bereizteko irizpideak aipatzen dira: "artatze-lanetan zabarkeriaz jokatzeko" eta "abandonua".

## Gurasoen gaitasunik eza haur edo nerabearen portaera kontrolatzeko (64. or.)

- **Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurrak eta nerabeak egokitzapen-arazo pertsonal, familiar eta/edo sozial kanporatuak izatea eta haien larritasun-maila, eta (2) aita, ama edo tutore nahiz zaintzailea gai izatea arazo horiek kontrolatu edo kudeatzeko.
- **Larritasun-mailen** deskribapena. Honako hauek bereiztea: (1) arazoak familian, eta (2) arazoak familiatik kanpo.
- **Gai bereziak:** Oro har, tipologia horretan nerabeak edo nerabezeroaren inguruko adineko haurrak sartzen dira.

**Beste batzuk****A. JAIO AURREKO TRATU TXARRA (66. or.)**

**Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** Jaio aurreko tratu txarrak oso larritasun handiko kalifikazioa izango du beti. Amak edo aitak haurdunaldian izandako jokabideak eragindako gaixotasun fisiko, mental edo sentsorial **larriak** dituzten jaioberriei aplikatzen zaie. **Gai bereziak:** Jaio aurreko tratu txarra egon dela umea jaio ondoren egiaztatu beharreko kontua da. Haurdunaldiko arrisku-egoeren baloraziorako, ikusi "Jaio aurreko arriskua" edo "Jaio aurreko aldiaren hautemandako babesgabetasunarekiko zaurgarritasuna" (dokumentuaren III. zatia).

**B. TRATU DESEGOKIA (67. or.)**

**Honako eskala hauek sartzen dira:** (1) **Janaria eta ura nahita kentzea (67. or.)**, (2) **Konfinamendua edo murrizketa fisikoa (68. or.)**, eta (3) **Etiket bidaltzea edo etxean sartzen ez uztea (69. or.)**. Eskala bakoitzaren **larritasun-mailen** deskribapena.

**C. GALBIDERATZEA (70. or.)**

**Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Nolako zorrotasunez jokatzeko duten gurasoek, tutoreak edo zaintzaileak, (2) zenbateraino ahalbidetzen edo bultzatzen duten haurra edo nerabea portaera horien eraginpean egotea edo haietan parte hartzea, eta (3) egoerak zer eragin duen gaur egun edo izan dezakeen haurraren edo nerabearen egokitzapen sozialean. Honako hauek sartzen dira: delinkuentziara bultzatzea, guraso-eredu asozialak izatea eta indarkeriara bultzatzea edo beste pertsona batzueganako mendekotasuna sortzea, sexua, erlijioa, jatorria, sexu-orientazioa, ezaugarri fisikoak edo antzekoak direla eta. **Larritasun-mailen** deskribapena.

**D. ESKEKOTASUNA (72. or.)**

**Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Zer maiztasun edo baldintzapean dabilen eskean haurra edo nerabea, (2) Guraso, tutore edo zaintzaileak mehatxurik edo gogorkeriarik egiten duten, eta (3) egoerak zer eragin duen gaur egun edo izan dezakeen haurraren edo nerabearen osasun fisikoan eta ikastetxeko asistentzian. **Larritasun-mailen** deskribapena.

**E. LAN-ESPLOTAZIOA (73. or.)**

**Larritasunaren balorazioa egiteko kontuan izan beharreko alderdiak:** (1) Haurrari edo nerabeari mehatxurik edo derrigortzerik egiten zaion, (2) zer maiztasun eta zenbat denboraz lan egin behar izaten duen, eta (3) egoera horrek zer eragin duen bere jardueretan (prestakuntzakoak, ludikoak eta sozialak) edo atsedeen-premietan. **Larritasun-mailen** deskribapena. **Gai bereziak:** Etxeko lanetan gehiegizko arduraz izatea ez da barnean hartzen (horiek "tratu txar emozionalak" tipologian sartzen dira).

**Arrisku larria edo desanparoa dakarten beste egoera espezifiko batzuk (74. or.)**

- **Definizioa:** Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen **haurraren edo nerabearen bizitza edo oinarrizko osotasuna arrisku larrian** egon daitekeela pentsarazteko moduko ezaugarri edo muga jakin batzuk dituzte, eta **familia-ingurunean ez dago inolako kontrol-elementurik** gabezia horiek betetzeko eta haurraren edo nerabearen oinarrizko beharrak gutxienezko maila egokian beteko direla bermatzeko.
- **Egoera hauek biltzen ditu:** (1) **Aitak, amak edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eragindako babesgabetasun larriko aurrekariak**, (2) **Zailtasun pertsonal larriak gurasoengan edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonengan**, (3) **Gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen aldi baterako edo behin betiko ezintasuna babes-betebeharrak betetzeko**.
- **Gai bereziak:** Egoera horiek agertuz gero, kasua oso larritzat hartzen da automatikoki.



### Beste inguruabar batzuk balioesteko irizpide teknikoak

- Jaio aurreko aldiaren detektatutako jaio aurreko arriskua eta babesgabetasunarekiko zaugarritasuna (77. or.)
- Lankidetzeta-maila gurasoen edo tutoretza edo zaintza betetzen duten pertsonen eta haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko gizarte-zerbitzuetako profesionalen artean (79. or.)

### Dokumentazio osagarria

- Glosarioa (82. or.)
- Tresnaren laburpen-orria (85. or.)
- Hautzaroko eta nerabezaroko oinarriko beharren taxonomia eta horien ebaluaziorako adierazleak (88. or.)
- Balora tresna — Gidaliburu azkarra (102. or.)